

noaue

**Langabetuak
kontratatzeko
deialdi berri bat**

**Errigoraren kanpaina
berria: oliba olio**

**Oria ibaia, “egoera
ekologiko eskasean”**

**Puntapax
Eguneko Zentroak
sei plaza gehiago izango ditu**

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Bertsu gutiziak

**ANDONI EGAÑA
MAIALEN LUJANBIO
AITOR MENDILUZE
ELIXABET PAGOLA**

Gaijartzailea:
JOXE LUIX
URDANGARIN

Otsailaren 19an,
19:00etan
**Basque
Culinary
Center-en**

Sarrerak salgai
HERNANI **Kronika, Kixkal, Aralar**
ASTIGARRAGA **Ikatza**
ERENOTZU **Irrintzi**
GOIZUETA **Amaia kafetegia**

20€

ONDOREN
**GUTIZIA BEREZIZ OSATUTAKO
BERTSO LUNTXX-AFARIA**

ANTOLATZAILEA
**URUMEAKO
Kronika**

LAGUNTZAILEA
INSALUS

Albisteak iruditzen

Haizeak gogor jo zuen aurreko asteburuan

Mendealdetik fronte berri bat iritsi zen aurreko asteburuan. Eta frontearekin batera, negua. Zaparradak, ekaitza, txingorra eta tenperaturen jaitsiera. Haizeak ere gogor astindu zuen Kostaldea. Abisu horia emanda zegoen, haizeak 100 km/orduko abiadura gainditzeko arriskua zegoelako. Eta abisua ez zebilen oker. Igande goizean, haize bolada gogor batek argazkian ageri den seinalea bota zuen. Arsuagaenea parkean duela gutxi ipini zituzten semaforo itxurako seinaleak. Igandeko haizeak lurrera bota zuen seinalea. Zorionez ez zuen ezbeharrik eragin. Astelehen goizetako semaforoa zutik eta bere tokian zen berriro.



Semaforoaren erorketak ez zuen bidea itxi baina auto handien ibilera oztopatu zuen.

Laburrean

1956koen kinto afaria

Otsailaren 27an bilduko dira, Antxeta jatetxean. Otordurako izen emateak zabalik segitzen du, otsailaren 22ra arte. Izen emateko deitu, bi telefonoz zenbakiotako batera:

- 656 308 212 (Iñaki).
- 943 362 555 (Mari Karmen).

KzGuneko ikastaroak

- Martxoak 1-10, 16:00-20:00: Argazki ukitua GIMP erabiliz.
 - Martxoak 11-22, 16:00-20:00: Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako.
- Informazio gehiago: 943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net / kzgunea.eus

Tipi-Tapako zozketa

- Legatzadun pintxo festa ospatu zen igandean. Amaieran, ohiko bi zozketak egin zituzten. Sarrituek Txiribogatik pasa beharko dute sari bila.
- 1.saria, 150 euroko erosketa balea: 3.726.
 - 2.saria, 2 lagunentzako afaria: 3.730.
- Hurrengo Tipi-Tapa, martxoaren 13an.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaua.eus // www.noaua.eus
Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Ilazki Gaintza

Aniztasunaren alde, txotx!

Anitzak gara, aniztasunak inguratzen eta aberasten gaitu; baina, hala ere, zaila egiten zaigu onartzea. Usurbilen aniztasuna edonon ikus dezakegu: jatorri desberdinetako pertsonak, aniztasun funtzionala dutenak, beren burua genero binariotik at ulertzen dutenak, familia “heteronormatibo-perfektutik” kanpo daudenak, etab. herriko kaleetan topa ditzakegu, ziur gure lagunak direla, edota ezagunak. Denok osatzen dugu hain aberatsa den herri anitza.

Hain gertu, baina hain urrun. Hala ere, oso gertutik bizi ez baditugu aniztasun horiek, askotan ez gara ulertzeko gai izaten. Gainontze-

koen errealitateak ulertzeko enpatia izatea zaildu egiten zaigu gure familikoa, laguna edota ezaguna ez denean pertsona hori. Gainera, gure iritzi edota bizitzeko eratik at dauden pertsona horien inguruko artikulua, liburu, dokumental edota beste edozein euskarri bidez beraien ingurua hobeto ulertzeko lana egin beharrean, ez gara saiatu ere egiten.

Politikoki zuzena denez aniztasuna onartzen dugula esatea, hala egiten dugu kuadrilan, familian edota lanean gaudenean, baina halakoak al gara benetan? Diogunarekin koherenteak al gara? Ziur nago asko eta asko inkoherentzian erortzen direla esan eta egiten dutenaren artean.

Horregatik, ahalik eta ko-

herenteen izan gaitezen, ezinbestekoa iruditzen zait inguruan ditugun aniztasunei erreparatzea eta berauek ulertzeko interesa agertzea. Oso erraza da gure etxeko sofafan bota eta telebistan ikusten duguna kritikatzeko: munduan zehar dauden injustiziak, etxetik gertuago ditugunak; baina, ezer egiten ez dugun bitartean, ez dugu aldaketarako gure alea landatu ere egingo.

Beraz, aldaketa eragiteko denon artean, dioguna praktikara eraman beharko dugu. Horretarako, lehen esan bezala, interesa izatetik abiatu behar gara. Aniztasuna benetan aberatsa eta onuragarria dela sinesten badugu, askoz errazagoa izango da interes hori

azaldu eta praktikara eramatea.

Hori hala izanda, gure inguruko haurrei ere aniztasun hori errespetatu eta baloratzen irakatsiko diegu eta benetako herri anitza lortuko dugu. Has gaitezen gure inguruko aniztasuna denontzat aberasgarria dela ulertzetik. Herri anitzean denon arteko elkarbizitza sustatzea ezinbestekoa da, ez soilik norberak bere bizitza independenteki eramatea; horrek eragiten baitu benetako aberastasuna errealtate desberdinak konpartitzerako uneen, elkarbizitza horrek. Usurbil anitz baten alde, txotx!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | **Ilazki Gaintza** | Luis Aranalde | Idoia Torregarai

Sutegi udal liburutegiko txokoa

Haur eta gazte liburutegian, 2015 urtean mailegatuenak

Txiki eta Haur Txokoa: gometsa urdina, gorria eta berdea

- Anna Llenas, *Koloretako munstroa*, 2015 (Urdina).
- Yolanda Arrieta, *Maddalenen usaina*, 2014 (Gorria).
- Ramon Olasagasti, *Ipurtargien herrian*, 2014 (Berdea).



Ikusentzunezkoak:

- *Txo Mikmak* txikia, 2015 (pelikula).
- *Big Hero 6*, 2015 (pelikula).
- *2 princeses barbudes*, *Gaueko entziklopedia* koxkorrera, 2014 (musika).



Gazte literatura, gometsa horia:

- Jon Arretxe, *Beti iparralde-rantz*, 2014 (12+).
- Angel Burgas, *Noel te busca*, 2014 (15+).
- Unai Iturriaga, *Haur besoetakoa: litxarrerien jauna*, 2014 (Komikia).



Informazio gehiago:

- Bloga: <http://liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/>
- Twitter: @usurbib
- Facebook: facebook.com/sutegi05/
- Instagram: @sutegi05

Sutegi Udal Liburutegia

Langabetuak kontratatzeko dirulaguntza deialdi berri bat

Lanbiderekin elkarlanean, eskualdeko udalek, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Usurbilek abian jarritako ekimena da hauxe. Iazko abenduan amaitu zen proiektu honen lehen fasea. Horren bitartez, hiru eta sei hilabete arteko kontratuak burutzeko modua izan dute eskualdeko eta inguruko enpresek. Denera 22 izan ziren burututakoak. Deialdi berri honekin, beste 11 kontratu burutzeko dirulaguntza lerroa zabaldu dute eskualdeko udalek.

Orain, bigarren fase batean, martxoaren 1a bitartean eskualdeko nahiz inguruko enpresek aukeran dute dirulaguntza horietaz baliatzea langabetuak kontratatzeko.

Gutxienez hiru hilabeteko kontratuak

Kontratuen iraupenak gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du. Lanaldi osora edota erdira. Lanaldi osorako bada, dirulaguntza 3.000 euro izanen da, al-



Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Lasarte-Oria eta Usurbilek abian jarritako ekimena da hauxe. Udalaren web orrian, usurbil.eus helbidean topatuko duzue dirulaguntza deialdi honen inguruko informazio gehiago.

DIRULAGUNTZAK

“Lanaldi osoko kontratua bada, laguntza 3.000 eurokoa izango da. Lanaldi erdikoa bada, 1.500 eurokoa”

diz, lanaldi erdira izanik 1.500 eurokoa. Guztira, 11 kontratu burutzeko aukera dago eta, ondorioz, dirulaguntza eskatzeko aukera ere. Informazioa eskuragarri dago udaletxe bakoitzean bai web orrian bai-

ta enplegu arloko lansailetan edota bulegoetan. Kontratazioak abian jartzeko epea martxoaren 1ean amaituko da eta hilabete beranduago, hau da, martxoaren 31 bitartean izango dute enpresek dirulaguntza eskaera egiteko aukera.

Eskaerak egiteko

Dirulaguntza eskaerak, beti ere, Andoaingo udaleko Enplegu lansailean aurkeztuko dira Urigain etxean – La Salle etorbidea, 6 (943304221).

Urbil alokairuan du Eroskik

Eroskik duen zor finantzarioari aurre egiteko Gonuri Harizartean S.L. sozietate higiezinak (Eroskik bertako kapital sozialaren %45a du) 11 mer-

kaltagune saldu berri dizkio Invesco izeneko AEB-tako inbertsore talde bati. Saldu dituen merkaltagune handien artean da Urbil. Eta Urbilekin batera, Leioa, Barakaldo,

Abadiño, Zalla, Iruña, Tuter, Arrasate, Zarautz, Azkoitia eta Ordiziako merkaltaguneak. Jabe berriak alokairuan utzi dizkio merkaltagune guztiok Eroskiri.

Iaz baino 43 langabetu gutxiagorekin hasi dugu urtea

Estatuko Enplegu Zerbitzuak 344 langabetu zenbatu zituen duela urtebete Usurbilen. 2016ko lehen hilabetearen berriz 301 langabetu, lanik gabeko 43 lagun gutxiago beraz. Abenduko datuekin alderatuta, 9 langabetu gutxiago izan ditugu urte hasiera honetan.

Langabetu gutxiago erregistratu dituen udalerri bakarra izan da Buruntzaldean, gainerako udalerrietan gorantz egin baitu langabezia tasak; guztira 4.192 langabetu zeuden Buruntzaldean abenduan. Urtarrilean, 4.341.

Gipuzkoan ere bai, 41.335etik 42.611ra igo da langabetu kopurua.

Emakumeen artean, langabetu kopuru handiena

Usurbilgo langabetu kopurua beherantz doan arren, lan baldintzak ez doaz hobera. Bate-tik, emakumeen artean dago langabetu kopuru altuena; urtarrilean 166 emakume ziren lanik gabe, eta 135 gizonetzko.

Kontratazio gehienak aldi baterako sinatu ziren

Aldiz, gizonetzkoen kontratazioak emakumezkoenaren gainetik segitzen du; urtarrilean erregistraturiko 340 kontratutik, 172 lan kontratu gizonetzkoenak ziren, 168 emakumezkoenak. Kontratu gehienak, 320, aldi baterako sinatu ziren.


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5


Paitia
barkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

“Prozesu independentista eta eraldatzailea abian jarri nahi dugu”

Abian izeneko barne hausnarketa prozesu berri batean da Ezker Abertzalea. Ohi denez, eztabaida prozesu irekia sustatu nahi dute militanteekin; tartean, arrazoi politikoengatik espetxean direnekin. Ezinbestekotzat jotzen baitute presoan parte hartzea. Prozesu honen jendaurreko lehen hitzordua hain zuzen, espetxe atarietan antolatu du Ezker Abertzaleak larunbat honetarako. Kartzeletara martxak antolatu dituzte. Usurbila datorren prozesuaz argibideak eskaini dizkigute bi herritar preso ohiek; Olatz Altunak eta Joxe Domingo Aizpuruak.

NOAUA! Usurbilen ere abian prozesua martxan jartzera doa Ezker Abertzalea. Zer dakar prozesu honek?

Joxe Domingo Aizpurua: Eztabaida honen bidez, prozesu independentista eta eraldatzailea abian jarri nahi dugu. Zutik Euskal Herria estrategiaren aldaketan aurrera nola egin behar dugun zehaztea litzateke eztabaida honen mamia.



Ezker Abertzalearen “Abian” prozesuaz argibideak eskaini dizkigute Olatz Altunak eta Joxe Domingo Aizpuruak.

JOXE DOMINGO AIZPURUA

“Ezker Abertzalearen izaera eta batasuna berrindartzeko beharko lukeen ariketa dugu hau. Ibilbidearen balantzea eta fase politikoaren azterketa egingo da, aurrera begirako ibilbidea zehazteko”

Zutik Euskal Herria, fase politikoa aldatzeko bidea izan zen. Aurreko strategiaren agorpen zantzuak nabariak ziren. Hausnarketa horren ondoren, estrategia aldaketa beharrezkoa zen kokapen prozesuan aurrera egiteko. Bizi dugun geldialdi politikoak eta estrategia gaurkotu beharrak ekarri gaitu Abian eztabaida honetara. Ezker Abertzalearen izaera eta batasuna berrindartzeko be-

harko lukeen ariketa dugu hau. Ibilbidearen balantzea eta fase politikoaren azterketa egingo da, aurrera begirako ibilbidea zehazteko.

N. Txosten bat aurkeztu berri da, eztabaidarako. Abiatua da jada prozesua?

J. D. A.: Txosten hau ehunka ekarpen eta entzute fase baten ondorioa izan da. Hor jaso diren ekarpenekin osatutako txostena da. Txosten hau ez dago erabat itxia, deitu diren herri batzarretan osatzen joango da.

Olatz Altuna: Garrantzitsua da garai politiko berri hauetan Abianen planteatzen direla bost erronka nagusiki. Aurrez aurrez heltzen diei gai hauei; euskal preso eta iheslarien etxeratzea; biktimak, elkarbizitza eta memoriaren inguruan ere egiten da proposamen bat; armen deuseztatzea eta armategien desegitea; indar okupatzaileen irteera, aspaldiko eskakizuna herri honetan; eta azkenik, errepresioa eta askatasun demokratikoak.

“Abian prozesuak erdigunean jartzen du presoan etxeratzea eta iheslarien itzultzea”

NOAUA! Prozesua abiatzeko espetxeetara martxak antolatu dira larunbaterako; Usurbilen, Foncalentera. Ze helbururekin?

Joxe Domingo Aizpurua: Helburua ahalik eta espetxe gehienetara iristea da, horrek duen esangura eta sinbolismo guztiarekin, presoan kolektiboari elkartasun hori guztia eta beraiek eragile bezala prozesu honetan parte hartzea duten

garrantzia adierazteko. Beraiek ere prozesu independentista honetan aktibo integral oso bat direlako, ez bakarrik beraien ondorioen konponketarako. Gatazkaren ondorioak betirako konpondu nahi baditugu, derri gorrean prozesua bere bururaino eramane beharra dago eta akordio politiko batekin bukatu behar du.

Olatz Altuna: Bizi izan du-

dan aldi horretan ikusi dut ze garrantzitsua den presoak parte hartzea halako prozesu batean. Azken batean, Abian prozesuak erdigunean jartzen du presoan etxeratzea eta iheslarien itzultzea. Hor proposamen bat dago eta ezinbestekoa da, proposamen horren adostasun bat eta eztabaida bat izatea arrazo politikoengatik espetxean dauden

presoekin eta haien ekarpenak jasotzea. Horregatik Abianen lehenengo ekimen publikoa da, 40 espetxeetara egitea martxa hau. Azkenekoak 1992an egin ziren Herrerara. Sona handia izan zuten. Beste testuinguru bat zen. Dispersioa hasi berri-tan egin ziren. Espiritu hura ere berreskuratzea nahi izan da martxa hauekin.

Abian prozesua, Usurbilen ere martxan

Abian prozesu betean da Ezker Abertzalea; “Abian deituriko eztabaida ariketa egiten ari da Ezker Abertzalea, nazio askapena eta askapen soziala helburu eraikitako mugimendu iraultzailea”.

Testuinguru honetan, dutozen asteotan barne eztabaidarako baliatuko den txosten bat landu eta aurkeztu berri dute. “Txosten honen helburu nagusia Zutik Euskal Herria-ko ekarri zuen estrategia aldaketak eragindako ziklo politikoan aurrera nola egin behar dugun zehaztea da. Estrategia gaurkotzeko ariketa da, beraz, baina aldi berean Ezker Abertzalearen nortasuna eta batasuna berrindartzeko balio beharko luke. Ibilbidearen balantzea eta fase politikoaren azterketa ere egingo dugu, jakina, baina betiere aurrera begira norabide argi bat marrazteko asmoarekin”, dio Abian prozesuari loturiko dokumentuak.

Txostenaz iritzia eman eta ekarpenak egiteko prozesua burutuko da hurrengo asteetan herriz herri. Baita Usurbilen ere. “Txosten honek irudikatzen duen norabide orokorra berresten dugun ala ez erabaki behar dugu. Horixe da guztion artean ebatzi beharrekoa. Antolakundeek egingo dituzten ondorengo eztabaidetan izango dute xehetasunetan sartzeko, zuzenketak egiteko eta ezberdintasunak argitzeko aukera, norberak bere esparrura egokituta”, dio Abian eztabaida prozesurako aurkeztu duten txostenak. Prozesuari loturiko hiru batzar deitu ditu



Abian prozesuaren baitan, larunbat honetarako espetxe guztietara martxak antolatu ditu Ezker Abertzaleak.

EZKER ABERTZALEA

“Estrategia gaurkotzeko ariketa da, baina aldi berean Ezker Abertzalearen nortasuna eta batasuna berrindartzeko balio beharko luke”

Ezker Abertzaleak Usurbilen.

Foncalenteko espetxera martxa

Lehenago, “Abian” prozesuaren baitan, eta euskal presoak euskal herriratzea eskatzeko, Ezker Abertzaleak espetxe guztietara martxak antolatu ditu larunbat honetarako, otsailaren 20rako. Usurbilen, Foncalenteko kartzelara; bertan daude espetxeratuak Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarrak. Joan etorrirako autobus zerbitzua antolatu dute eta izen ematea zabalik dago jada.

Hitzorduak

Otsailak 20, larunbata

01:00 Foncalenteko espetxera martxa autobusez, Oiardo Ki-

roldegitik. Itzulera, larunbat arratsalde-iluntzean. Autobuserako izen ematea, Aitzaga tabernan. Bidaia laguntzeko 10 euroko bono-laguntzak daude Aitzaga tabernan.

Martxoak 5, larunbata

09:30 Batzarra Potxoenean: “Balantze eta testuinguruaren egoeraren eztabaida”.

Martxoak 19, larunbata

09:30 Batzarra Potxoenean: “Definizio estrategiko eta eztabaida eta etorkizuneko garapenaren zehaztapena”.

Apirilak 16, larunbata

09:30 Batzarra Potxoenean: “Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida eta bozketa”.

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Datorren ostiralean, hilak 26, otsaileko azken ostirala. Usurbilen Nahi Ditugu elkarteak antolatuta, euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko elkarretaratzea iluntzeko 20:00etan hasita, Mikel Laboa plazan.

Udalbiltzako lehendakaritza kargua uztera doa Mertxe Aizpurua

Hego eta Ipar Euskal Herriko udal hauteskundearen zikloa amaitu ondoren, Udalbiltzak zuzendaritza berrituko du larunbat honetarako, otsailaren 20an Atarrabiako kultur etxean egingo duen nazio biltzarrean. Biltzar horretan, lehendakaritza utziko du Mertxe Aizpuruak eta bere lan taldeak, eta talde berriari lekukoa pasako diote, Udalbiltzak ohar bidez jakitera eman duenez, “datozen urteotako ildo estrategikoa finkatzeko eta garatzeko”.

Balantzea

Azken urteotako jardunak emandakoa gogorarazi du Udalbiltzak, ohar bidez. Euskal Herriko Garapen eta Kohesio Fondoa sortu du, “Pirinioetako Lan eta Bizi” egitasmoa indarrean ipini du eta ondorioz hamarnaka hitzarmen sinatu ditu erakunde eta eragile txiki zein handirekin. Bestetik, Naziotasunari buruzko gogoeta egin du, Euskal Herriaren marka eta posizionamendua munduan zehar kokatzeko asmoz eta udalerrien eta Unibertsitatearen arteko zubi lana egiteko “Ikerbiltza” egitasmoa sortu du, dagoeneko emaitza bikainak ematen ari dena”.

Aurrerantzean, lan hauei segida emateko asmoa du Udalbiltzak.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK
645417665
XABIER
Usurbil

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

Oliba olioaren orain, Eskutik Eskura

Kalitatezko produktua, euskaraz etiketatua eta bidezko prezioan eskuratzeko aukera izango dugu laster, Errigora abiatzearen den "Eskutik eskura" egitasmoari esker. Ekimenean parte hartuta, Nafarroa hegoaldeko ekoizpena sustatzen, lurraldeen arteko harremanak sendotzen eta ingurumena zaintzen lagunduko dugu.

Iaz bezala, Errigorak Nafarroa hegoaldean ekoiztutako oliba olio birjina estra ekologikoa eta konbentzionala salgai jartzera doa, herriz herri. Udazkenean produktu sorta batekin egin bezala, oraingoan ere tokiko ekoizpena eta euskara sustatu nahi dituzte beste behin.

"Eskutik eskura bertako produktuak gure eguneroko kontsumo ohituretara ekartzeko proposamena da. Gure kontsumo eredu aldatzeko gonbitea. Kontsumitzaile arduratsuak herriz herri elkartzeko saiakerak: gutako bakoitzari on egin dagion eta, denon artean, gure



Aukeran, bi dira hautatu daitezkeen bidoiak.

AUKERAN, BI OLIO MOTA

Ostiral honetan irekiko da eskaerak egiteko epea. Iaz bezala, NOAUA! ari da kanpaina bideratzen

inguru hurbilari on egin diezaiozun", Errigoraren esanetan.

Iaz, 65 eskaera

Iaz harrera ezin hobia izan zuen kanpainak Usurbilen.

Guztira 65 oliba olio bidoi saldu ziren. Horietatik 39 oliba olio bidoi ekologiko eta 26 bidoi konbentzional, eskaerak egiteko zabalik egon zen epearen baitan. Aurtengora itzultita, ostiral honetan irekiko da eskaerak egiteko epea, ekimenarekin bat egin duen NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan:

■ Eskaerak noiz: otsailaren 19tik martxoaren 2ra.

■ Eskaerak non: NOAUA!-ko egoitzan, 943 360 321 edo elkartea@noaua.eus

■ Oliba olio birjina estra ekologikoa, 5 litro: 32 euro.

■ Oliba olio birjina estra konbentzionala, 5 litro: 22,50 euro.

■ Ordainketak: bidoiak NOAUA!ko egoitzan jasotzerakoan.

■ Antolatzailea: Errigora, NOAUA!rekin elkarlanean.

Udarregin ere egin daiteke eskaera

Eskaerak Udarregi Ikastolan ere egin daitezke. Baina olio jasotzeko NOAUA!ra etorri beharko da.

Santixabeletako Jai Batzordea

Festak antolatzen hasteko garaia da. Lehen bilera otsailaren 22an, 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia da, norbanako nahiz eragileek parte har dezakete batzordean. Bilgune honetan erabaki ohi dira jai egunak, egitaraua...

Udalaren gobernu programaren aurkezpena

Datozen lau urteotan, Usurbilgo Udaleko gobernu taldeak gauzatu nahi dituen egitasmoak ezagutzeko aukera izango da astebete barru. "2016-2020 bitartean Usurbilgo Udal Gobernuak aurrera eramango dituen ekimenik garrantzitsuenak aurkeztuko dira", otsailaren 25ean, iluntzeko 19:00etan hasita Sutegiko auditorioan. Udalak antolaturiko ekitaldia, irekia izango da herritar ororentzat.

Udal dirulaguntza deialdia

Otsailaren 29ra arte zabalik segitzen du, Usurbilgo Udalak eginiko dirulaguntza deialdirako eskabideak aurkezteko epeak. Gogoan izan, kultur, kirol eta gizarte ongizate alorretan 2016an zehar herri eragileek bideratu asmo dituzten egitasmoak lagundu nahi ditu Udalak. Baita 2015eko urtarrilaren 1etik 2016ko otsailaren 5era ingurumen nahiz nekazaritza eta abeltzaintza eremuetan gauzaturiko egitasmoak.

Informazio gehiago:

■ Otsailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
■ Udal erregistroa: astelehenetik ostiralera, 08:00-14:30 artean.

■ 943 371 951 / usurbil.eus

Bi bikote usurbildar, Euskal Herriko Mus Txapelketako finalaurrekoan

16 bikotek parte hartu zuten urtarrilaren 31n Aitzaga Elkartearen ospatu zen Euskal Herriko 8. Mus Txapelketan. Haietatik 2 bikote sailkatu dira, larunbatean 15:00etan hasita Alegiako kultur etxean ospatuko den herrialde mailako finalerako:

1- Aitor Makazaga Beristain-Juantxo Iraola Otaño.

2- Migel Angel Goenaga Etxeberria-Iñaki Esnaola Zabala.

Hurrengo faseak

Otsailak 20, larunbata

7 herrialdeetako finalak.

Sariak: txapelak, garai ikurrak,



Urtarrilaren 31ko kanporaketan, 16 bikote aritu ziren Aitzagan.

asteburuko egonaldiak, bazkari eta afariak...

Martxoak 5, larunbata

Final nazionala Urdaibaren (Zuberoa).

Sariak:

Txapeldunak: txapela, garai ikurra, 3.000 euro eta Kariberra bidaia dena barne, 4 lagu-

nentzat.

Txapeldun ordeak: garai ikurra, 1.500 euro eta bi lagunentzako bidaia Kanariar Uhartetara.

3. bikote sailkatua: 750 euro eta asteburuko egonaldia 4 lagunentzat.

4. bikote sailkatua: 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako 2 matrikula.

5-16 postu arteko bikote sailkatuentzat: sari txikiagoak.

Informazio gehiago:

ehmus.eus

Antolatzailea:

Euskal Herriko Mus Federazioa.

Sei plaza berri eskainiko ditu Puntapax Eguneko Zentroak

Zenbait egokitze lan egin ondoren, 6 plaza berri eskaintzeko moduan da Usurbilgo Puntapax Eguneko Zentroa. “Behin diru laguntza bideratuta eta lanak amaituta, Eguneko Zentroa prest dago, martxotik aurrera, onuradun berriak hartzeko”, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

143 metro karratu zituen lehen, Eguneko Zentroak. Haur Eskolarekin partekatzen duten eraikineko espazioak aztertu eta berrantolatu ostean, 60 metro karratu irabazi ditu egokitzapen lanekin. “Egun zentroak dauzkan 143 metro karratuei, planta bereko beste 60 metro karratu gehituko zaizkie, bi espaziotan: 53 metro karratuko jardueretarako gela handi bat eta beste 7 metro karratuko garbigela bat. Haur eskolako eta zentroko erabiltzaileek, paseraiko espazio komun bat izango dute, aldaketa honekin”, Udalak zehaztu duenez.

Langile bat gehiago

35.000 euro bideratu dituzte lanotara. Inbertsio honi esker,



35.000 euroko inbertsioari esker, Eguneko Zentroko erabiltzaile kopurua handituko da. Sei plaza berri eskainiko dira. Lan taldea ere handitu egingo da.

ESKAERA, GORUNTZ

“Azken bost urteotan, batz besteko eskatzaileen adina jaitxi egin da eta zerbitzuaren beharra goiztiarragoa izatera pasa da”

Eguneko Zentroko erabiltzaile kopurua handituko da; 6 plaza berri eskainiko dira. Baita lan taldea ere. “Gaur gaurko Eguneko Zentroa kudeatzen duen GSR enpresak langile bat gehi-

tuko du beharrei behar bezala erantzuteko”, ohartarazi du Udalak.

Eguneko Zentroaren handitzearekin, azken urteotan hazi den eskaerari erantzun nahi zaio. 2003ko azaroan lan egunetarako 8 plazarekin ireki zuten, 12 plaza izatera igaro ziren gero. Beste 6 plaza asteburuetan. Urteotan, guztira 55 erabiltzaile izan ditu Puntapaxek. “Azken 5 urtetako datu batzuk kontuan hartzen baditugu, ba-

tez besteko eskatzaileen adina jaitxi egin da eta zerbitzuaren beharra goiztiarragoa izatera pasa da. Honek eskaera kopurua handitzea suposatzen du eta aldi berean itxarote denbora luzatzea. 2015eko datuak kontuan hartuta, sartzeko 9 eskaera egon dira eta 2 baja. Datu orokorreari erreparatu gero, Orioko zentroan 5 usurbildar daude, Hernanin beste bat eta bi itxarote zerrendan”, Udaletik berri eman dutenez.

Belaunaldi arteko loturak sendotzen

Puntapax Eguneko Zentroak, Haur Eskolarekin partekatzen du Kalezarren kokatua dagoen eraikina. Baina ez dira aparteko bi zerbitzu eta belaunaldi arteko loturetan sakontzen dute hiler, bi zerbitzuek. “Jakina da, belaunaldi arteko esperientziak denentzat direla onuragarriak: adinekoak biziberritu egiten dira, autoestimua hobetzen dute eta umeen alaitasuna eta barrea kutsatzen zaie. Hilean behin, esperientzia intergenerazionalen bidez, zaharren ezagutzatik ere ikasten dute haurrek”.



“Esperientzia intergenerazionalaren bidez, zaharren ezagutzatik ere ikasten dute Haur Eskolako ikasleek”.

“Partida ez dago erabakita”

Hala dio Zubietan eraiki asmo duten erraustegiaz, Errausketaren Aurkako Mugimenduak kaleratu berri duen oharra. “Guk badakigu partida ez dela inola ere bukatu, eta elkarrekin jokatzera erabaki dugu. Otsailaren 28ko martxa horren ondorioa baino ez da”, nabarmendu dutenez.

Larunbatean batzartu zen Errausketaren Aurkako Mugimendua Zubietan. Ordukoa da aldameneko argazkia. “Elkarrekin arituz gero, erraustegi-proiektua berriro bide bazterrean utz dezakegu, oraingoan behin betiko utzi ere”, bileraren ondoren ohar bidez adierazi zuten. Otsailaren 28rako erraustegia eraiki asmo duten “0 puntura” martxa antolatu dute.

Errausketaren Aurkako Mugimenduak prentsa-oharra plazaratu zuen aurreko larunbatean. Honela dio: “Kontrakoa sinestarazi nahi diguten arren, partida ez dago erabakita.

Foru Aldundiak erraustegi-proiektua berpiztu du eta, ondorioz, horren kontrako oposizioa ere aktibatu egin da.

Joan den urtarrilean, erraustegiaren mehatxuari aurre egiteko hainbat talde eta pertsona bildu ginen Zubietan: talde eskarmen-tudunak eta sortu berriak; Zubietatik gertu bizi diren pertsonak eta urrutixeago bizi direnak, izan ere, arazo hau Zubietako ingurukoei soilik axola zaiela uste dutenak oso-oso oker dau-de.

Talde eta pertsona desberdinak bildu ginen, jakina, baina oinarritzko ideia pare batean, behintzat, guztiz bat gatoz. Lehenengo ideia da erraustegia pertsonen osasunerako zein ingurumenerako arriskutsua dela. Bigarrena, errausketak, sistema garestia izateaz gain (horren adierazle bat baino ez da Hondakinaren Kontsortzioak tarifak %20 garestitzeko hartu berri duen erabakia), errotik galarazten duela birziklatze-bidean eta ekonomia zirkularreko bidean aurrera egiteko aukera.



Aurreko larunbatean Zubietan batzartu ziren otsailaren 28ko martxa prestatzeko.

HERRI PLATAFORMA

“Bada batzen gaituen uste sendo bat: elkarrekin arituz gero, erraustegi-proiektua berriro bide bazterrean utz dezakegu, oraingoan behin betiko utzi ere”

Baina, oinarritzko bi ideia horietatik aparte, bada batzen gaituen uste sendo bat: elkarrekin arituz gero, erraustegi-proiektua berriro bide bazterrean utz dezakegu, oraingoan behin betiko utzi ere.

Uste sendo honek berebiziko garrantzia du. Izan ere, Foru Aldundiak behin eta berriro sinestarazi nahi digu alferrik ari garela, “hau” nahitaezkoa dela, atzeraezina; hemendik pixka batera proiektua esleitu duela, geroxeago lanak, eta lau urte

barru erraustegia halabeharrez martxan egongo dela, tximinia-keak dariola. Mezu hauek amore eman dezagula dute helburu. Oso zaila dute, ordea, lehen ere askotan entzun ditugulako, erraustegia Zaldunbordan eraiki nahi izan zutenean, eta gero Landarbasen, eta Urnietan, eta Aritzetan... Kasu haietan ere 31 zituztela eta esku zeudela uste zuten. Partida galdu zuten, ordea. Orain orduko lelo bertsuarekin datoz, eta, kasu haietan zer gertatu zen ezagututa, pentsatzen hasita gaude guk amore eman dezagun baino gehiago ez ote duten leloa behin eta berriro errepikatzen beraien buruari amore emateko, “oraingoan bai” sinesteko beharra baltute bezala.

Nolanahi ere, guk badakigu partida ez dela inola ere bukatu, eta elkarrekin jokatzera erabaki dugu. Otsailaren 28ko martxa horren ondorioa baino ez da”.

Errausketaren aurkako martxa

Erraustegia eraiki asmo duten “0 gunera” mendi martxa antolatu du otsailaren 28rako, Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Azpiegituraren kokagunea inguratzen duten udalerrietatik herritar zutabe bana abiatuko da egun horretan, zero guneko horretara.

■ 11:00etan Usurbil eta Zubietako frontoietatik irteera.

■ “0 puntu” horretan elkartuko dira 12:00etan herritar zutabe guztiak.

■ Zubietako frontoian amaituko da martxa, 13:00ean.



Otsailaren 28an, zutabe guztiak guneko honetan batuko dira.

Errioa, “egoera ekologiko eskasean”

Uraren Euskal Agentziak (URA) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ur sarearen egoerari buruzko txostena kaleratu du. Besteak beste, Zubietan, Usurbil eta Aginaga alderik alde zeharkatzen duen Oria ibaia aztertu dute. 2009-2014 urte arteko datuak bildu dituzte. Emaizak ez dira harro egoteko modukoak. Sorburutik itsasoratu arte egiten duen bidea eta Oria arroa bera aintzatzotzat hartuta, “Oria ibaiaren egoera ekologikoa zuzena da Amezketaren edo Amabirjinen ahorraino: ibilbidearen zati handiena egoera ekologiko onean dago. Toki horretatik aurrera eta estuarioraino, egoera ekologikoa eskaserraino okertzen da, eta estuarioan egoera neurritsua du”.

Udalerri hau zeharkatzen duen errioa egoera ekologiko eskasean da URA agentziaren arabera. Ur masaren egoera, ona baino okerragoa dela diote, alegia ez dituela betetzen Uraren Esparru Zuzentzauren ingurumen helburuak zonalde honetan. Argi dio txostenak: “Zadorraren, Ibaizabalen eta Oriaren arroak dira egoera okerrera dutenak, egoera ekologikoari



Gordin mintzo da txostena: “egoera ekologikoari dagokionez, Zadorraren, Ibaizabalen eta Oriaren arroak dira egoera okerrera dutenak”.

URA AGENTZIA

“Une honetan, arroko hiri-araztegiak ustiatze fasean daude eta garai batean isurtzen zituenak baino askoz ere karga txikiagoak isurtzen ditu orain industriak”

dagokionez”, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Baina bada datu baikorrik, Oriaren egoera ekologikoa es-

kasa bada zonalde honetan, ikuspuntu kimikotik egoera onean da errioa.

Hobetzen

Bada datu esperantzagarriak ere. URA-ren esanetan, Ibaizabal edota Deba arroetan gertatu den moduan, “kontuan izan behar da hasierako egoera hiri- eta industria-kutsadura larri-larrikoa zela, kasu honetan, funtsean, papergintza sektorearen ondoriozkoa”. Ez baita ahaztu behar Oria arroan

historikoki industriaren jardueraren oso bizia izan dela eta lan-tegiok “oso kutsatzaileak izan dira, eta, ondorioz, uraren kalitatean arazo larriak eragin izan dituzte”.

Azken urteotan ordea, egoerak hobera egin duela nabarmentzen du URA agentziaren txostenak. “Une honetan, arroko hiri-araztegiak ustiatze fasean daude (dena den, zenbait auzo eta tamaina txikiagoko herri batzuk bildu gabe daude oraindik) eta garai batean isurtzen zituenak baino askoz ere karga txikiagoak isurtzen ditu orain industriak”, ohartarazi du.

Honez gain, ur zikinak erriora ez isurtzeko egin diren ahaleginek ere Oriaren egoera hobetzea ekarri dute. “Hondakin-urak arazteko sektore publikoan eta pribatuan egin diren ahaleginek bidea eman dute garai batean oso kutsatuta zeuden zenbait zatik egun askoz ere egoera hobea izateko. Oraindik ere, isurketa batzuk kolektoreetan bildu gabe daude eta araztegiaren bat duela gutxi jarri da martxan. Horrez gain, ardatz nagusiaren eta adar batzuen egoera morfologikoak mugatu egiten du lehengoratzeara”, URA agentziaren esanetan.

2011ko uholdeak, urteotako gorabehera nagusia

2009-2014 arteko urte hidrologikoak ere aztertu ditu URA agentziak. Oriaren ur emariari dagokionez, gorabehera nabarmenena 2011ko azaroan erregistratu zuten, hila-bete hasiera hartan izan ginen uholdeen eraginez.

“Oso deigarria da 2011ko azaroan izan zen uraldia, ibaiek gainezka egin baitzu-

ten, kalteak izan baitziren toki askotan eta eguneroko batez bestekoak 700 m³/s-ko maila gainditu baitzuen. Horrekin alderatuta, gainerako uraldiak txikiagoak izan dira”, berri eman du URA agentziak.

Oriaren arroa, zenbakitan

Biztanleak 2014an: 160.595. (EAEko biztanleria: %7,4).

Biztanleria dentsitatea: 205,9 biztanle kilometro karratuko. Azalera: 899,35 kilometro karratu (Gipuzkoako azalera osoaren %40a).

2009-2014 urteen arteko bilakaera

Urte hidrologikoetako ekarpenak, urriaren 1etik irailaren 30era (Hektometro kubikotan):

- 2009-10: 712,9.
- 2010-11: 675,6.
- 2011-12: 793,3.
- 2012-13: 1.439,2.
- 2013-14: 922,3.
- Batatz bestekoa: 800,3.

Informazioa

Informazio gehiago eta txostena eskuragarri: uragentzia.euskadi.eus

Tapa eta aurkibidea Kprest

Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditza-kezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2015



599-640 zenbakiak

BAZKIDEEN TXOKOA



Otsailaren 19an ZOZKETATUKO dugu:

URDAIRA
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaUA! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkarte@noaUA.eus

Otsailaren 22an, Santixabeletako Jai Batzordearen lehen bilera

Herriko festak prestatzen hasteko ordua heldua da. Santixabeletako Jai Batzordeak lehen bilera deitu du, otsailaren 22rako, datorren astelehen arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Jaien egutegia finkatu nahi dute, eta festetarako proposamenak bildu. Festetan ekitaldi edo ekimenik antolatu nahi baduzue, hortxe duzue zuen ekarpenak egiteko bilgune aproposa. Ohi bezala, bilera irekia izango da; herritar nahiz eragileak daude gonbidatuak.

■ Otsailak 22 astelehena.

■ 18:00 Potxoenean.



Batetik, jaien egutegia finkatu nahi da; eta bestetik, festetarako proposamenak batu.

Gure Esku Dagoren bazkidetza kanpaina

